

GREBA MUGAGABEA SELAK ENPRESAN

Selak-eko huelga Saveria Services enpresara zabaldu da

■ Lan baldintza hobek eskatzen dituzte ■ Egunero egiten dituzte kontzentrazioak.

HAMALAU egun daramazkete greban Selak enpresako 120 langilek. Atzo ezker, Saveria Services enpresako 60 langile ere eurekin dira. Bi enpresa hauek Grupo Saveria-ren barruan daude. Goizero, 08:00etatik 12:00ak bitarte egoten dira enpresa aurrean; 09:00etan, berriz, Zinkoenean.

BALDINTZA HOBEAK

Lan baldintza egokiagoak eskatzen dituzte bi enprese-

tako langileek. Saveria Services-ekoek eskatzen dutena da: soldata igoera, istripuengatik diren bajak % 100 ordaintzea, 35 orduko lan-astea eta gau-eko jornada %25 gehiago ordaintzea. Baita ere: langile fijo gehiago, ETT bidez langile gutxiago kontratatzea eta ETT-etakoak plantilara pasatzea. Orain, 70 langile ari dira lanean; zortzi orduz eta 811,37 euro inguru (135.000 pta) kobratzen. Horietatik 20

ETT-etakoak dira.

Selak-eko langileek 14 egun daramazkete huelgan. Esan digutenez, atzo hitz egin zuten zuzendaritzarekin. Langileek eskatu diote abenduko nomina ordaintzeko eta plataformari erantzuna emateko. Orduan, negoziatuko dutela.

ENPRESA BARRUAN NEGOZIATU

Selak-eko zuzendaritzak Kronikari esan dionez, ez dute

oraindik iritzi publikorik atarako "prozesu internoa da eta barruan negoziatu nahi dugu".

Saveria Service-ko zuzendaritzak ez du adierazpenik egin nahi izan.

ELA, UGT, CCOO eta LAB

Lau sindikatuk apoiatzen dute greba. Batetik, enpresan ordezkariak duten ELA, UGT eta CCOO-ek. LAB-ek ere bere babesa azaldu die huelgan dauden langileei. □

Floridako tunela itxita

■ LANDARE eta Floridara arteko tunel baju hori, Benta Berriko Tunela, itxita dago. Edateko uraren tuberia pasa behar dute, eta 3 astez egongo da itxita.



Benta Berri-tunela.

Autobus zerbitzu berezia San Sebastian bezperan

■ LARUNBAT gauean Donostia-Hernani autobus zerbitzu berezia egoten da 23:00etatik 06:00ak arte. Zerbitzu horrez gain, datorren larunbat gauean Garayar konpainiak orduerdi jarriko du autobusa. 23:00etan aterako da aurrenekoa Urnietatik eta 07:00etan azkenekoa Donostiatik. □

PELOTA

Pelota partiduak, gaur

■ Buruz buru: Esnal / Ayo. Binakako txapelketan: Oiaga-Aldazabal / Oar Arteta-Zubiaga. Gaur, 22:30etan kiroldegian. □

BERTSOLARITZA

Tabernetako Txapelketa 'Garin'en

■ GAUR, 22:30ak aldera, Garin tabernan. □

ZINEA BITERIN

'Sin noticias de Dios'

■ GAUR, 22:30etan, Biterin. □

HASI DA TXOTX GARAIA

Hernaniko sagardotegi gehienak gaur zabalduko dituzte

■ Bertako sagarrak eta izandako tenperaturek sagardo ona agintzen dute sagardogileen ustez.

SAGARDO garaiari eman diote hasiera. Hernaniko sagardotegi gehienak gaur irikiko dituzte eta besteak pronto dira. Edan-egoten dute ere bai, seguruen.

Aurten sagardotegi berria ere iriki dute Martindegin: Oialume-Zar. Oialumen dago, tabernaren ondoan, eta 50 lagun ingururentzako tokia du.

URTARRILAK 18

Gaur zabalduko duten sagardotegiak hauetxek dira: Larre-Gain, Eizmendi, Itxasburu, Otsua-Enea eta Goiko Lastola. Gainerakoak ere laster zabalduko dira: Akarregi hilaren 19an; Zelaia eta Oialume-Zar 24an; Iparragirre 26an; Rufino 28an; Altzueta eta Alberro otsailaren aurrenean eta Elorrabi irikita dago, joan den larunbatetik.



Txotx denboraldia irekitzeko ekitaldia. Martin Fizek hartu zuen aurreneko tragoa (Arg: Alberto Elozegi).

Arrigoain
jatetxea

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Karta

Santa Barbara 87 (Harrobian)

☎ 943 550097

-Astelehen eta astearte gauean itxia-

HERNANI

KixKal
Taberna
naqusia 15

Egunero pintxo aukera ederra. Asteburuetan pintxo beroak ere bai.

ITXASPE
ARRANDEGIA

Antziola 5 - Tel. 943 330 365
20120 HERNANI

LARRE-GAIN
Tolara-Sagardotegia

Ereñotzu - Hernani
Tel. 943 55 58 46

Gaur zabalduko dugu txotx denboraldia.

Zatoz lehenengo sagardo tragoak egitera!

Sagardo naturala urte osoan botilan salgai

Hernaniko 80 erakunde sozialek euskera normalizatzeko konpromisoa fimatuko dute, larunbatean

■ Ekitaldi publikoa izango da ■ Plaza Berrian da, 12:00etan ■ Firma ekitaldia 'Bai Euskarari Akordioa Hernanin' inizatibak antolatu du.



Hernanin joan den urrian aurkeztu zen Bai Euskarari Akordioa.

HERNANIN *Bai Euskarari Akordioa* aurrera daramakien elkarteak firma emate publikoa antolatu du datorren larunbaterako. *Bai Euskarari Akordioa* Kontseiluaren plana da eta herrian euskera normalizatzea du helburu. Hernanin 2001eko urriaren 31ean aurkeztu zen, eta gero, erakunde, enpresa, elkarte eta abarretara zabaldu da proposamena.

Orain artean, sektore ezberdinetako 80 gizarte erakundek

sinatu dute Akordioa. Larunbatean egingo den ekitaldi publikoan, denek banan bana sinatuko dute euskerarekin hartu duten konpromisoa.

DIAGNOSIA, HELBURUAK ETA PLANA

Euskeraren aldeko akordioa fimatutuenek konpromiso hau hartzen dute: eguneroko lanean euskeraz funtzionatzeko bideak jarri eta pausoak ematea.

Horretarako, aurrena sektore bakoitza euskerari dago-kionez zer egoeretan dagoen ikusiko da; gero, sektore bakoitzak zein helburu dituen planteatuko da; eta horren arabera, planak eta ekintza konkretuak egingo dira. Hemendik aurrera ekingo zaio horri.

Sinadura ekitaldian Mertxe Etxeberria alkatea egongo da Jarraipen batzordeko ordezkari, eta Jose Mari Usoz Gizarte Eragileen izenean. □

'Kabalgata' antolatzeko komisioa sortu da Berriak-ek konbokatutako bileratik

■ Hamar laguneko batzorde batek hartuko du 2003-ko kabalgata antolatzeko ardura ■ Bileran gauza asko esan eta argitu ziren.

BERRIAK elkarteak 2003-ko Erregeen Kabalgata antolatzeko bilera irekia egin zuen joan den asteartean. Dendariez gain, talde eta inguru askotako jendea bildu zen. Udaletxetik alkatea eta kultura zinegotzia ere han ziren. Denera, 30-35 lagun izan ziren.

10 LAGUNEKO KOMISIOA

Berriaren bilerak eman du bere frutua, eta datorren urteko Kabalgata antolatu duen komisioa martxan da. Komisioa 10 pertsonako talde batek osatuko du.

Datozen asteetan, Berriak eta komisioa bildu eta

hor erabakiko dute lanean nondik nora hasi.

GAUZAK ARGITU

Kabalgataren kontuarekin gauza asko zabaldu da kalean eta komunikabideetan. Berriaren ustez, astearteko bilerak gauzak bere lekuan jarri zituen: kabalgata zer ematen dion herriari, antolatzeko jende falta, azken aldian kabalgata izan dituen gora-beherak eta jendearen beldurra, udalaren politika (antolatzen duenari lagundu, baina, ez berak antolatu) eta abar. Zentzu honetan, Berriak elkarte oso pozik dago bilerak gauzak asko argitzeko ere balio izan zuelako. □



Erregeak ume batekin, iaz.

Tren estazioan txakurra hilda egon da 9 egunetan



Jende guztiaren bistan egon da bederatziguneguz.

ATZO arte egon da hildako txakurra Floridako tren estazioan. Joan den asteko asteazkenean azaldu zen eta han egon da 9 eguneguz, bertatik egunero pasatzen den emakume batek esan digunez. Itxuraz, zegoen lekuan zegoelako (estazio aurrean, tren karrilean erorita) inor ez zen bere kargu egiten. Emakume honek deitu omen du: udaltzainetara, RENFEra, *Sanidad*-era eta Animalien babeserako elkartera. Azkenean, RENFEk aginduta atzo kendu dute, estazioko arduradunak esan digunez. □

■ BOLA -Taldekako Txapelketa-

Hernaniarrak, atzean

■ Elur-Txorik zortzigarren egin zuen eta bera izan zen herriko onena, igandean.



Hernaniko 3 ekipoetako bolariak, Mutiloan.

TALDEKAKO Bola txapelketa igandean hasi zen, Mutiloan. Hernaniko hiru taldeak han ziren (Elur-Txori, CD Hernani eta Ur-Mia), eta tirada txukunak eginagatik ezin izan zuten aurreneko postuetan sartu. Taldekako txapelketa bi tiraldietara izaten da, eta igandean,

La Salle taldeak bota zituen brilla gehiena: 273. Bigarren Ategorrieta gelditu zen 270 brilla botata. Hernaniarretan onena Elur-Txori izan zen: 8garren gelditu zen 243 brilla botata. CD Hernani 10garren gelditu zen, 235 brillekin eta Ur-Mia 11garren, 233rekin. □

■ ERREMONTA -Binakako Txapelketa-

Altuna II-Etxabe semifinaletara

■ Atzo 40-37 galdu zuten Ezkurra-Urkoren kontra.

IRRATIAK

(F.M. 99.2) 11:40: Bai Euskarari Akordioaren sinadura publikoa. Ixiar Erasun 12:00: Tabernetako txapelketa. Petto. 12:15: Txotx denboraldiari buruz sagardogileekin.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

☎ Taxiak: 943 550093
☎ Udaltzaingoa: 943 333288
☎ DYA: 943 464622
☎ Autobusak: 943 556662
☎ Anbulatorioa: 943 557750
☎ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

☎ Egunez: Bilbao - Sagastiberri Urbieta 7
☎ 943 552941
☎ Gaeuz: Rodriguez Lasarte. Nagusia 42
☎ 943 361774

ESKOLARTEKO KIROLA -ASTEBURUKO PARTIDUAK-

FUTBOLA	TALDEAK	NON	BIHAR	SASKIBALOA	TALDEAK	NON	BIHAR
Infantil mut.	Lasalle-Urumea	Andoain		Alebinak. Mut.	Langile B-Inmaculada	Kiroldegia	9:15
ESKUBALOA	TALDEAK	NON	BIHAR	ATLETISMOA	TALDEAK	NON	BIHAR
Alebinak	Elizatxo B-Udarregi A	Urnieta	10:00	Benjaminak	Talde guztiak	Sagastialden	10:00
PELOTA	TALDEAK	NON	BIHAR	Alebin eta infanlilak	Talde guztiak	Sagastialden	11:00
Infanlilak	Langile A-Elizatxo	Usurbil	16:30				
Infanlilak	Udarregi B-Langile B	Usurbil	16:00				

IRAGARKI MERKEAK

■ Santa Barbara bidean, artzai txakurra galdu zen Saretxo inguruan. Sei hilabetekoa da, txuri-horixka. Ikusi duenak deitu:

943-556017/554616.